


Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización



Bidasoa Oarsoko Industrialdea, SA

2017





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	9
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	9
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	9
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	10
III.1 Kontratazioa.....	10
III.2 Hornitzaileei ordaintzeko epeak.....	10
III.3. Beste alderdi batzuk.....	10
IV. URTEKO KONTUAK.....	11
ERANSKINAK.....	15
A.1 Araudi aplikagarria.....	15
A.2 Ibilgetuko inbertsioak.....	16
A.3 Izakinak.....	17
A.4 Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk.....	18
A.5 Taldeko enpresetan eta kideuetan eginiko epe laburreko inbertsioak.....	19
A.6 Taldeko enpresetatik jasotako aurrerakinak.....	19
A.7 Langileria.....	20
A.8 Ustiapeneko beste gastu batzuk.....	21
A.9 Kontratuen analisia.....	21
ALEGAZIOAK.....	23



ABREVIATURAS	27
I. INTRODUCCIÓN.....	29
II. OPINIÓN.....	31
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de legalidad.....	31
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	31
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	32
III.1 Contratación	32
III.2 Plazo de pago a proveedores.....	32
III.3 Otros aspectos	32
IV. CUENTAS ANUALES	33
ANEXOS	37
A.1 Normativa aplicable	37
A.2 Inversiones inmobiliarias	38
A.3 Existencias	39
A.4 Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar	40
A.5 Inversiones en empresas del grupo y asociadas a corto plazo.....	41
A.6 Anticipos recibidos de empresas del grupo	41
A.7 Personal.....	42
A.8 Otros gastos de explotación.....	43
A.9 Análisis de contratos.....	43
ALEGACIONES	45



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAEHONALTB	Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina.
KBA	Kontrataziorako barne aginpideak.
SPKLTB	Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
STC-ELS, SA	Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea SA.



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean Epaitegia) Bidasoa Oarsoko Industrialdea SAREN (aurrerantzean Sozietatea) 2017ko ekitaldiko Urteko Kontuak fiskalizatu ditu, otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onartutako Lanerako Planean jasotakoari jarraikiz.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: ezargarria den arautegia bete dela egiaztatzea aurrekontu, langileria eta ondasun eta zerbitzuko kontratuetan.
- Kontularitzakoak: urteko kontuak ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datozela egiaztatzea. Sozietateari urtero egiten diote auditoria bat; honenbestez, gure lana auditoreen lan paperak berrikustera mugatu da eta hala behar izan denean, egoki irizitako proba osagarriak egin ditugu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi dela ere, azaleratutako hutsak “Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak” idazpuruan xehetasunez jaso ditugu.

Sozietatea 1986ko martxoaren 7an eratu zen. SPRI Taldeko kide da, STC-ELS SA sozietatea buru dela, eta EAEko Administrazio Orokorrek % 99,1eko partaidetza du.

2017ko abenduaren 31n akziodunen osaera honakoa da:

Akziodunak	Euroak milakotan	
	% partaidetza	Zenbat.
SPRILUR, SA (*).....	% 51,00	7.920
Gipuzkoako Foru Aldundia.....	% 24,50	3.805
Irungo Udala.....	% 16,68	2.590
Oarsoaldea, SA (**).....	% 7,82	1.215
GUZTIRA	% 100	15.530

(*) STC-ELS SAK % 94ko partaidetza du Sozietatean eta EAEn Administrazio Orokorrek % 6koa.

(**) % 100 Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaiaiko udalek partaidetua.

EAEn sozietate publiko den aldetik nortasun juridiko propioa du eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren berezko gaiei dagokienez, berriaz aplikagarri zaizkion xedapenek arautzen dute eta horiei aurka egiten ez dietenetan, zuzenbide pribatuak arautzen du, EAEHONALTBrn III. Idazpuruaren IV. Kapituluaren agindutakoari jarraikiz.

Sozietatearen helburua da industria ekimena eta inbertsioa sustatzea Bidasoko eta Oarsoaldeko eskualdeetan, honako hauen bidez:

- Enpresak hartzeko lurzoru egokiaren hirigintzako sustapena eta horretarako, hirigintza planen sustapen eta idazketa eta urbanizazio, birsailkapen eta konpentsazio proiektuak



edo hirigintzako legediak aurreikusten duen bestelako zeinahi molde baliatuko du; baita, lurzorua urbanizatu eta sustatzeko egokia den edozein lurzoruko jabetza erostea ere.

- Pabilioen industria-guneak eta eraikin osagarriak eraikitzea, jabetza osorik eskualdatu arte kudeatuaz.

Sozietatea Industrialdeak Programan dago eta helburua enpresa-jarduera laguntzea eta industriak dauden udalerrietako baldintza sozioekonomikoak hobetzea da.

Eratu zenetik 10 industria-poligono garatu ditu eta horietako bi, Oianzabaleta Irunen eta Ugaldetxo Oiartzunen, oso-osorik saldu dira lehenagoko ekitaldietan. Gainera, 2017an bi lursail erosi ditu Irunen, Araso eta Gametxo-Errandoneako eremuetan, Arason poligono berria eraikitzeko lanak abiarazi ditu eta Gametxo-Errandonean eraikuntza-proiektua idazteko eta obra zuzendaritzarako laguntza teknikoa kontratatu du.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Kanpoko enpresa aditu batek 2017ko ekitaldian lanpostu bat izaera mugagabearekin zuzkitzeko egindako hautaketa euskarritzen duen dokumentazioak ez du egiaztatzen uzten berdintasun eta merezimendu printzipioak bete diren.

Epaitegi honen ustetan, aurreko paragrafoan aipatutako lanaren zabalaren mugaketa alde batera, Bidasoa Oarsoko Industrialdea SAK zuzentasunez bete du 2017ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Bidasoa Oarsoko Industrialdea SAREN 2017ko ekitaldiaren Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2017ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan, alde batetik, jarduera ekonomiko eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzeari modu nabarmenean eragiten ez dioten hutsak adierazten dira; eta bestetik, kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozeduraren alderdiak.

III.1 KONTRATAZIOA

- Sozietateak ez ditu ekitaldian gauzatutako kontratu guztiak EAEko Kontratuen Erregistroan erregistratu, EAEren sektore publikoko kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 52 eta 55 artikuluetan agintzen denaren aurka.
- 2017an 50.000 euroren gainera formalizatutako kontratua aztertu dugu (ikus A.9) eta zera atzeman dugu formula bidez kuantifikagarriak ez diren irizpideen balorazio txostenean emandako puntuazioak ez dira behar hainbat arrazoitu.

III.2 HORNITZAILEEN ORDAINKETA EPEAK

- Sozietateak guztira 238.353 euro ordaindu ditu (2017ko ekitaldiko ordainketa guztien % 9,1) eta 30 eguneko gehieneko epea gainditu du, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriei buruzko abenduaren 29ko 3/2004 Legearen 4. artikuluan finkatzen duena.

III.3 BESTE ALDERDI BATZUK

- 2017an erosketa-aukera gauzatu da Txirrita-Maleoko (Errenteria) pabiloi baten gainean izenpetutako errentamendu kontratu batean eta eskritura publikoan jaso da Sozietateak estalkia berritzeko kostuaren % 50 bere gain hartzeko konpromisoa, izan ere bizitza erabilgarria amaitua baitu; estalkia aurrez zegoenaren antzekoa izango da. Fiskalizazio-lan hau egin dugun datan ez dago konpromiso honen kostuaren ez gauzatzeko aurreikusitako epearen balioespenik.



IV. URTEKO KONTUAK EGOERAREN BALANTZEA

		Euroak milakotan	
	Eranskina	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA		17.940	18.328
Ibilgetu materiala		50	53
Ibilgetuko inbertsioak.....	A.2	17.730	18.108
Epe luzeko finantza-inbertsioak.....		-	7
Geroratutako zergagatiko aktiboak.....		160	160
AKTIBO ARRUNTA		25.029	25.403
Izakinak	A.3	5.696	2.917
Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk	A.4	5.533	7.289
Taldeko enpresetan eta kide-tuetan eginiko epe laburreko inbertsioak ..	A.5	13.483	15.083
Epe laburreko finantza-inbertsioak		1	1
Eskudirua eta bestelako aktibo baliokideak		316	113
AKTIBOA, GUZTIRA		42.969	43.731
ONDARE GARBIA		30.819	31.810
Funts propioak		26.347	27.096
Diru-lagunt., dohaintza eta legatuak.....	A.6	4.472	4.714
PASIBO EZ-ARRUNTA		11.739	11.806
Epe luzeko zorrak		181	179
Taldeko eta elkartutako enpresekiko epe luzeko zorrak.....	A.6	9.637	9.552
Gerorat. zergarengatiko pasiboak	A.6	1.921	2.075
PASIBO KORRONTEA		411	115
Zorrak epe laburrera		41	39
Merkataritzako hartz. eta kobratzeko beste kontu batzuk		370	76
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA		42.969	43.731



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA

		Euroak milakotan	
	Eranskina	2017	2016
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	A.2	589	709
Izakinen bariazioa, abian den sustap. eta eraikitako eraikina.....	A.3	2.526	(623)
Izakinak ibilgetuko inbertsioetara eskualdatzea	A.2	720	503
Hornikuntzak	A.3	(3.256)	(45)
Ustiapeneko bestelako sarrerak.....		174	170
Langileria-gastuak.....	A.7	(278)	(286)
Ustiapeneko bestelako gastuak	A.8	(384)	(413)
Ibilgetua amortizatzea.....		(679)	(663)
Ibilgetua besterenganatz. narriadura eta emaitza	A.2	(422)	89
USTIAPENAREN EMAITZA		(1.010)	(559)
Sarrera finantzarioak.....	A.4	203	272
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egozte eta beste	A.6	383	377
Gastu finantzarioak.....	A.6	(385)	(377)
EMAITZA FINANTZARIOA		201	272
EMAITZA ZERGA AURRETIK		(809)	(287)
Etekinen gaineko zerga.....	A.6	60	96
EKITALDIKO EMAITZA		(749)	(191)

ONDARE GARBIKO ALDAKETEN EGOERA

1. AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTUEN EGOERA	Euroak milakotan	
	2017	2016
A) Galera eta irabazien kontuaren emaitza	(749)	(191)
B) Ondare garbian zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak	34	81
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	47	112
Zerga ondorioa	(13)	(31)
C) Galera eta irabazien konturako transferentziak guztira	(276)	(271)
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	(383)	(377)
Zerga ondorioa	107	106
AITORTUTAKO DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	(991)	(381)



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2. ONDARE GARBIKO ALDAKETEN EGOERA, GUZTIRA

Euroak milakotan


	Kapitala	Jaulkipen saria	Errserbak	Aurr. ekit. emait.neg.	Ekital. emaitza	Diru-lag. dohain. legatuak	Guztira
SALDOA 2015EKO ABENDUAREN 31N	15.530	4.339	9.300	(1.773)	(109)	4.904	32.191
Aitortutako diru-sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	-	(191)	(190)	(381)
Bazkide edo jabeekiko eragiketak (*)							
2015eko ekitaldiko emaitzaren banaketa	-	-	-	(109)	109	-	-
SALDOA 2016KO ABENDUAREN 31N	15.530	4.339	9.300	(1.882)	(191)	4.714	31.810
Aitortutako diru-sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	-	(749)	(242)	(991)
Bazkide edo jabeekiko eragiketak (*)							
2016ko ekitaldiko emaitzaren banaketa	-	-	-	(191)	191	-	-
SALDOA 2017KO ABENDUAREN 31N	15.530	4.339	9.300	(2.073)	(749)	4.472	30.819

(*) Aurreko ekitaldiko emaitza lehenagoko ekitaldietako emaitza negatiboei aplikatzea, honenbestez "Ondare Garbiaren beste bariazio batzuk" izan behar luke.

ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA

Euroak milakotan

	2017	2016
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik	(809)	(287)
Emaitzaren doiketak	900	302
Ibilgetua amortizatzea	679	663
Narriaduragatiko balorazio-zuzenketak	422	-
Diru-laguntzak egozteak.....	(383)	(377)
Ibilgetuaren baja eta besterenganatzeengatik emaitzak	-	(89)
Sarrera finantzarioak.....	(203)	(272)
Gastu finantzarioak	385	377
Kapital arruntean aldaketak	(1.657)	742
Izakinak	(3.498)	(673)
Zordunak eta kobratz. bs.e knt. b.	1.537	1.613
Beste aktibo eta pasibo arrunt batzuk	2	49
Hartzekod. eta ordaintz. bst kontu batz.	293	(180)
Beste aktibo eta pasibo ez arrunt batzuk.....	9	(67)
Ustiapen jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk	421	534
Interesengatik kobrantzak.....	202	272
Ordainketak (kobrantzak) mozkinen gaineko zerga kontzeptuan	219	263
Interesen ordainketak	-	(1)
USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(1.145)	1.291
Ordainketak inbertsioengatik	1.600	(3.395)
Desinbertsioengatik kobrantzak	-	1.864
INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	1.600	(1.531)
Finantza pasiboaren tresnengatik kobrantzak eta ordainketak.....	(252)	(182)
FINANTZAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(252)	(182)
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	203	(422)
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran	113	535
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	316	113





ERANSKINAK

A.1 ARAUDI APLIKAGARRIA

2017ko ekitaldian ezargarria den araudi nagusia honako hau da:

- 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapitalezko Sozietateen Legeari buruzko testu bategina onesten duena.
- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, EAEONALTB onesten duena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen gaitan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartu eta EAEn Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
- 2/2017 Legea, apirilaren 11koa, 2017ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorra onartzen dituena.
- 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontabilitate Plan Orokorra onesten duena
- 1994ko abenduaren 28ko Agindua, Kontabilitate Plan Orokorra ibilgetuko enpresetara egokitzeko arauak onartzen dituena.
- Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 733/2010 Agindua, martxoaren 25ekoa, inguruabar jakinetan jarduten duten enpresa publikoen kontularitzako alderdiak onartzen dituena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, SPKLTB onartzen duena.
- 2/2015 Legegintzako Errege-Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

Ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagokionez, SPKLTBren arabera, sozietateak aginte esleitzaileraren izaera du eta kontratuak pribatuak dira. Europar Batasuneko gutxienezko mailak gainditzen dituzten kontratuak (erregulazio harmonizatuari lotuak) prestatzeari eta esleipenari dagokionez, berariazko araurik ezean, SPKLTBk arautuko ditu. Europar Batasuneko atalaseak gainditzen ez dituztenek, onetsitako eta kontratatzailearen profileen argitaratutako Kontratazioarako Barne Jarraibideak aplikatu beharko dituzte esleipenean. Kasu guztietan publikotasun, lehia, gardentasun, isilpekotasun, berdintasun eta ez bazterkeria printzipioak gorde beharko dira.

Langileak kontratatzeari dagokionez, sozietate publikoa den aldetik, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioetara meneratua dago.

A.2 IBILGETUKO INBERTSIOAK

Hona hemen xehakapena eta kontu-mugimenduak 2017an:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	16.12.31	Izakinak eskualdatzea (ikus A.3)	Gehitz. zuzkid.	17.12.31
Kostua				
Txirrita-Maleo (Errenteria)	367	39	-	406
Masti-Loidi (Errenteria).....	1.151	-	-	1.151
Egiburuberrri (Errenteria).....	1.461	-	-	1.461
Sagasti (Lezo).....	219	-	-	219
Gabiria (Irun)	95	-	-	95
Araso (Irun).....	510	-	-	510
Arretxe-Ugalde (Irun)	1.060	800	-	1.860
Navalaldea (Pasaia)	16.653	-	-	16.653
KOSTUA GUZTIRA	21.516	839	-	22.355
AMORTIZAZIO METATUA	(3.408)	-	(676)	(4.084)
NARRIADURA	-	(119)	(422)	(541)
IBILGETUKO INBERTSIOAK GUZTIRA	18.108	720	(1.098)	17.730

Idazpuru honek errentamendura emandako ondasun higiezinak jasotzen ditu. Ekitaldian sortutako 588.948 euroren diru-sarrerak “Negozio zifraren zenbateko garbia” idazpuruan erregistratzen dira.

2017an izakinetatik 719.700 euroren saldo garbia aldatu da, 2017an izenpetutako hiru errendamendu kontratutan eta erosketa-aukeradun lau errentamendu kontratutan errentan emandako ondasunen kontularitzako balio garbiari dagozkionak.

2006an Pasaiaiko Portuko Agintaritzak Sozietateari 20 urteko emakida aitortu zion lursailak okupatzeko, 5 urteko aldietan gehienez 35 urtera arte luzagarria; lursail horietan Navalaldea poligonoa eraiki da, 2009ko ekitaldian amaitutako sustapena, eta errentamendu operatiboko erregimenean ustiatuko da. Poligono honen eraikuntza finantzatu zen Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta SPRILUR SAK emandako aurrerakin bidez (ikus A.6).



A.3 IZAKINAK

Hona hemen izakinen xehakapena eta kontu-mugimenduak 2017an:

POLIGONOA (UDALERRIA)	16.12.31	Erosk.	Kontrat. ebazp.	Lokala berroner.	Beste alta bat.	Euroak milakotan	
						ibilget. inberts. eskualdatzea (ikus A.2)	17.12.31
Kostua							
Erosi eta eraikitako eraikinak							
Arretxe-Ugalde (Irun).....	3.264	-	136	-	20	(800)	2.620
Txirrita-Maleo (Errearteria).....	-	361	-	39	-	(39)	361
Abian dauden sustapenak							
Gametxo-Errandonea (Irun)	7	1.450	-	-	29	-	1.486
Araso (Irun)	-	1.380	-	-	361	-	1.741
Egiburuberri (Irun)	-	-	-	-	6	-	6
Aztergai dagoen lursaila (Irun).....	6	-	-	-	-	-	6
Hornitzaileei aurrerakinak							
Gametxo-Errandonea (Irun)	145	(145)	-	-	-	-	-
Araso (Irun)	138	(138)	-	-	-	-	-
KOSTUA GUZTIRA	3.560	2.908	136	39	416	(839)	6.220
Narriadura							
Arretxe-Ugalde (Irun)	(643)	-	-	-	-	119	(524)
NARRIADURA GUZTIRA	(643)	-	-	-	-	119	(524)
IZAKINAK GUZTIRA	2.917	2.908	136	39	416	(720)	5.696

Sozietateak bi lursail erosteko konpromisoa hartu zuen 2016an, Gametxo-Errandonean eta Arason, guztira 2,8 milioi euroren zenbatekoan, eta % 10 aurreratu zuen, 283.000 euro. 2017an bi erosketa hauek eskrituratu ziren eta eraikuntza lanak abiarazi ziren Arasoko lursailean.

2017an erosketa-aukeradun bi errentamendu kontratu amaitu dira, 2016an izenpetu eta ekitaldi hartan salmenta modura erregistratu zirenak; honela, bada, horiek amaitzean errentan emandako lokalak berriz txeratu dira izakinetan 136.436 euroren zenbatekoan eta kobratzeko dauden kontuak ezabatu dira, 146.378 euroren zenbatekoan (ikus A.4). Gainera, ebazpen judizial bidez pabiloi bat berreskuratu da 39.117 euro ordainduta, 2001ean erosketa-aukerarekin errentan hartu zena eta ekitaldi horretan salmenta modura erregistratu zena; honenbestez, 2017an zalantzazko kobragarritasuna zuten 31.825 euroren kontuak ere ezabatu dira (ikus A.4).

Galera eta irabazien idazpuruko "hornidurak" idazpuruak honako kontzeptu hauek besarkatzen ditu:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	2017
Gametxo-Errandonean lursaila erostea	(1.450)
Arason lursaila erostea	(1.380)
Txirrita-Maleon pabiloi bat erostea	(361)
Txirrita Maleon lokal bat berroneratzea	(39)
Arretxe-Ugalden errentamendu kontratuak amaitzeagatiko erosketak	(146)
Obra ziurtagiriak eta beste kontzeptu aktibagarri batzuk	(416)
Erositako eraikinak, ilbilgetuko inbertsioetara txertatuak.....	39
Izakinen bariazioa.....	497
GUZTIRA	(3.256)

“Izakinen bariazioa” honako idazpuru hauetan zati-banatzen da:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	2017
Erositako eraikinen izakinetako bariazioa	(39)
Amaitutako sustapenen izakinetako bariazioa.....	(681)
Egiburuberriko sustapenaren izakinetako bariazioa	6
Arretxe-Ugalde izakinetako bariazioa	20
Araso izakinetako bariazioa	1.741
Gametxo-Errandonea izakinetako bariazioa	1.479
GUZTIRA	2.526

A.4 MERKATARITZAKO ZORDUNAK ETA KOBRATZEKO BESTE KONTU BATZUK

Hona hemen xehakapena:

	Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	17.12.31	16.12.31
Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak epe laburrera	598	707
Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak epe luzera	4.716	6.362
Hainbat zordun.....	27	1
Zerga arruntak erag. pasiboak.....	192	219
GUZTIRA	5.533	7.289

“Salmenta eta zerbitzuen emakidagatiko bezeroak” idazpuruaren saldoak lehenagoko ekitaldietan izenpetutako erosketak aukeradun errentamendu kontratuetatik abenduaren 31n kobratzeko dagoen kopuruari dagozkio nagusiki, zeinak salmentagatiko sarrera modura erregistratu ziren izenpetu zirenean, errentan emandako ondasunak izakinetatik baja eginez.

2017an erosketak aukerarekin izenpetutako lau kontratuen ordainketak, baina, interesak izan ezik, bezeroen aurrerakin modura erregistratzen dira, eragiketa hauek salmenta modura erregistratzeko adinako baldintzak betetzen diren arte. 2017ko abenduaren 31n



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

“merkataritzako hartzekodun eta ordaintzeko beste kontu batzuk” idazpuruan kontzeptu honen pean erregistratutako saldoa 9.496 euro da.

2017an 178.203 euroren kobratzeko kontuak baliogabetu dira, lehenagoko ekitaldian izenpetutako kontratu-amaieren ondorioz (ikus A.3). Gainera, 2017ko ekitaldian epemuga iritsi aurretik lehenagoko ekitaldian izenpetutako hiru erosketa-aukera gauzatu dira eta 968.793 euroren kobratzeko kontuak baliogabetu.

Erosketa-aukera duten errentamendu-kontratuek eragindako diru-sarrera finantzarioak, 201.750 euro 2017an, zorpetu ahala erregistratzen dira.

A.5 TALDEKO ENPRESETAN ETA KIDETUETAN EGINIKO EPE LABURREKO INBERTSIOAK

Sozietatea SPRILUR Taldearen Diruzaintza Zentralizatuaren Sistemari dago jasoa eta horren arabera, sozietate filialek soberako banku-saldoak SPRILUR SA sozietate nagusian irekitako kontu korrontean sartzen dituzte. Idazpuru honek Sozietatearen aldeko saldoa aipatutako kontuan jasotzen du.

A.6 TALDEKO ENPRESETATIK JASOTAKO AURRERAKINAK

Sozietateak 2002an bi lankidetzeta-hitzarmen izenpetu zituen Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta 2008an SPRILUR SArekin; horiengatik guztiengatik 16,5 milioi euro jaso zituen Pasaiako Portuan industria-poligono baten eraikuntza finantzatzeko (Navalaldea) (ikus A.2).

Interesik sortzen ez duten aurrerakin hauek itzultzen dira Sozietateak poligonoa ustiatzetik eskuratzen dituen diru-sarrera garbien bidez; honela, bada, 2017ko abenduaren 31n 15,8 milioi euro daude itzultzeko.

Aurrerakinak “Taldekoko enpresekin eta kide-tuekin epe luzeko zorrak” idazpuruan erregistratzen dira egungo balioarekin eta hori kalkulatu da aurrerakinen itzulketagatik gerora balioetsitako eskudiruzko fluxuak kenduta, sozietateak aurrerakina jaso zuen unean antzeko finantza baliabideetarako eskura izan zuen interes tipoarekin kalkulatu. Berebat, “Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak” idazpuruan jasotzen dira aurrerakin hauen diru-laguntza inplizituak, zero-ko interes tipoarekin.

2017ko ekitaldian aurrerakin hauekin lotutako kontuen mugimendua honako hau da:



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

KONTZEPTUA	16.12.31	Itzulketak	Balioaren erregular.	Interes inplizituak (*)	Emaitzeta egotziak	17.12.31
Taldeko enpresekiko epe luzeko zorrak						
Gipuzkoako Foru Aldundia	4.927	(125)	(22)	180	-	4.960
Eusko Jaurlaritza.....	3.250	(91)	(19)	151	-	3.291
SPRILUR SA.....	1.375	(35)	(6)	52	-	1.386
TALD. ENPR. EPE LUZ. ZORRAK GUZTIRA	9.552	(251)	(47)	383	-	9.637
Diru-laguntzak						
Gipuzkoako Foru Aldundia	2.192	-	16	-	(130)	2.078
Eusko Jaurlaritza.....	1.884	-	14	-	(109)	1.789
SPRILUR SA.....	638	-	4	-	(37)	605
DIRU-LAGUNTZAK GUZTIRA	4.714	-	34	-	(276)	4.472
ATZERATUTAKO ZERGENGATIKO PASIBOAK	1.833	-	13	-	(107)	1.739
JASOTAKO AURRERAKINAK GUZTIRA	16.099	(251)	-	383	(383)	15.848

(*) "Finantza gastuak" idazpuruaren erregistratzen dira.

"Zerga geroratuengatikoko pasiboak" idazpuruak, gainera, sozietateen zergan denborazko aldeak jasotzen ditu, lehenagoko ekitaldietan salmentagatikoko sarrera modura erregistratutako erosketa-aukera duten errentamendu kontzeptuenak, galera-irabazien kontuko "Mozkinen gaineko zergaren" kontura kitatzen doazenak. 2017ko ekitaldian "Zerga geroratuak eragindako pasiboak" idazpuruaren mugimendua honako hau da:

Euroak milakotan

KONTZEPTUA	16.12.31	Balioaren erregul.	Emaitz. egotziak	Erretiroak	17.12.31
Diru-laguntzetan denborazko aldeak	1.833	13	(107)	-	1.739
Erosketa-aukerako errentamendu kontratuetan denborzko aldeak	242	-	-	(60)	182
GUZTIRA	2.075	13	(107)	(60)	1.921

A.7 LANGILERIA

Hona hemen 2017 eta 2016ko ekitaldietan langileria-gastuen eta plantillaren gastuak:

Euroak milakotan

KONTZEPTUA	Langile-gastuak		Plantilla 12.31n	
	2017	2016	2017	2016
Soldata eta ordainsariak	218	228	6	5
Gizarte Segurantza.....	57	56		
Beste gizarte-gastu batzuk	3	2		
GUZTIRA	278	286		

2017ko ekitaldiko ordainsari igoera orokorra % 1ekoa da 2016ko ekitaldiko ordainsari osoen aldean.



Donostiako Epaitegiko lan-arloko aretoaren epaien ondorioz, baliogabe geratu da 2015eko uztailaren 31z geroztik 2010ean egindako soldata-murrizketa. Sozietateak 2015 eta 2016ko ekitaldietako atzerapen kontzeptuan 6.749 euro ordaindu ditu eta 2017ko ordainsariak doitu ditu.

2017an 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren % 48,89 ordaindu da, uztailaren 13ko Errege Dekretu-legea aplikatuta kendu zena, aurrekontuaren egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa. 2015 eta 2016an ordainsari honen gainerakoa ordaindu zen (% 51,11).

2017ko abenduaren 31n Sozietateak lan kontratu mugagabea duten sei langile ditu.

A.8 USTIAPENEN BESTE GASTU BATZUK

Hona hemen epigrafe honen xehetasunak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	2017	2016
Portuko Agintaritzaren kanona.....	30	49
Konponketak eta artapena.....	15	3
Profesional independenteen zerbitzuak	6	6
Aseguru primak	4	4
Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak	1	1
Hornidurak.....	3	3
Jabe-erkidegoen gastuak.....	122	119
Bestelako zerbitzuak	89	89
Zergak	114	139
GUZTIRA	384	413

A.9 KONTRATUEN ANALISIA

2017ko ekitaldian formalizatutako 50.000 euroz goitiko kontratu bakarra aztertu dugu:

KONTZEPTUA	Mota	Proz.	Euroak milakotan		
			Esleipen zenbat.	Egikaritza 2017	Akatsak
Irungo Araso Poligono Industrialaren IC-2A lursaila eraikitzea eta urbanizatzea Obrak	irekia	1.045	277	A	B

AKATSAK	Zenbat.
A Formula bidez kuantifikagarri ez diren esleipen-irizpideen puntuazioak, behar bezala justifikatu gabe	1.045
B Obrak hasteko epea justifikatu gabe aldatzea.....	1.045



BIDASOA OARSOKO INDUSTRIALDEA SA ENPRESARI 2017KO EKITALDIAN EGINDAKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI JARRITAKO ALEGAZIOAK

SARRERA

Bidasoa Oarsoko Industrialdea Saren 2017ko fiskalizazioaren emaitzei erantzuteko, txosten honetan, sozietateak erreferentziatzeko gaiaren gainean egin nahi izan dituen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoan zentralizatu diren alegazioak eta justifikazioak aurkezten dira.

II. IRITZIA

II.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

“Kanpoko enpresa espezializatu batek hautapen-prozesu bat egin zuen, 2017an lanpostu mugagabe bat hornitzeko. Bada, hautapen-prozesuko dokumentazioan ezin daiteke egiaztatu berdintasun- eta merezimendu-printzipioak bete ote ziren.”

Lizitazio-prozesua bi hizkuntzetan argitaratu zen Diario Vasco egunkarian, 2017ko urtarrilaren 8an.

Iragarki horretan, administratzaile bat eskatzen zen, eta enpresa espezializatuaren web-orrian zegoen profil osoa ikusteko aukera.

Zehazki, honako hau eskatzen zen:

- «- Lanposturako egokia den administrazio-prestakuntza (Administrazio-arloko II. LH/goi-mailako LH/diploma edo antzekoa).
 - Gutxi gorabehera 3 urteko eskarmentua antzeko lanetan.
 - Euskara-maila altua ahoz eta idatziz (C1 edo baliokidea).
 - Bulegotika-tresnak ondo ezagutzea, erabiltzaile-mailan.
- ERPetan eta kalitate-sistemetan eskarmentua edukitzea baloratuko da.*
- Honako hau eskaintzen da: lanean berehala hastea, lan-kontratu mugagabea eta lanpostuaren ezaugarriekin eta ardurekin bat egiten duen ordainsaria.*
- 2017ko urtarrilaren 25ean amaituko da hautagaitzak jasotzeko epea».*

Lanpostuak berezkoak dituen eginkizun hauen arabera ziren betekizun horiek:

«Zuzendaritzari administrazio-lanetan laguntzeko eginkizuna: deiak eta bisitak, artxiboa, txostenak, gutunak, kontabilitatea, fakturazioa eta zergak. Bestetik, enpresaren jarduera orokorrak kudeatzeko eta antolatzeko laguntza eta euskarri administratiboa emateko eginkizuna».

Prozesua hasi ondoren, 144 hautagaik eman zuten izena, eta horietatik 120 baztertu ziren, enpresa espezializatuaren arabera ez zutelako betetzen eskatzen zen profila.

Ondoren, interesik ez zutela adierazi zuten bik. Beraz, gainerako 22 hautagaiei egin zitzaizkien elkarrizketak, eta horietatik hoberentzat hartutako 7 onenak aurkeztu zizkion enpresa espezializatuak Bidasoa Oarsoko Industrialdea SAri.

Bidasoa Oarsoko Industrialdea SAK hartu zuen behin betiko erabakia, Irungo bulegoetan horietako bakoitzarekin elkarrizketa bat egin ondoren.

Azken batean, Bidasoa Oarsoko Industrialdea SAK uste du alegazioaren xede den administratzailea kontratatzeke orduan publizitate- eta lehia-betekizun nahikoak bete zirela.

Horren erakusgarria da hautapen-prozesuan parte hartu zuten interesdunen kopuru handia (amaieran, gainera, 7 hautagai egon ziren).

III. BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK

III.1 KONTRATAZIOA

“- Sozietateak ez ditu EAEko Kontratuen Erregistroan inskribatu ekitaldi horretan egindako kontratu guztiak, EAEko sektore publikoko kontratazio-araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 52. eta 55. artikuluetan ezarritakoarekin bat.

- 2017an 50.000 euroren gainetik formalizatutako kontratua aztertu dugu (ikus A.9) eta zera atzeman dugu formula bidez kuantifikagarriak ez diren irizpideen balorazio txostenean emandako puntuazioak ez dira behar hainbat arrazoitu.”

Sozietatea kontratazio-datuak Kontratuen Erregistroa sartzeko prozesuan dago. Kontua laster konpontzea eta erregistratu gabeko erosketarik ez egotea espero da.

Irungo Araso industrialdeko IC-2A partzela urbanizatzeko eta bertan eraikitzeke sinatu den kontratuari dagokionez, formula bidez zenbatu ezin daitezkeen esleipen-irizpideen ondoriozko puntuatzeak zenbait irizpideren arabera ziren:

Zehazki, honako alderdi hauek baloratu dira:

- «- *Eraikin industrialak ingurumen-arloan jasangarri eraikitzeke gidaren ondoriozko dokumentua.*
- *Obraren Ingurumen Kudeaketarako Planaren aurrerapen-maila eta ingurumen-alderdien ebaluazioa.*
- *Hondakinak Kudeatzeko Planaren aurrerapen-maila eta kudeatzaile baimenduen zerrenda.*
- *Obrei atxikitako langileen, ordezkariaren, obra-buruaren, ekoizpen-buruaren, kalitate-, ingurumen-, plangintza-, segurtasun- eta osasun-arduradunen eta arduradun orokorren organigrama.*
- *Obretan aritzeko konpromisoa.*



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Obran lanaldi osoan egongo den taldeak antzeko obretan duen eskarmentua (antzeko lanetan 5 urteko eskarmentua duen obra-burua).
- Bitarteko material propioak eta horien ehunekoa.
- Bitarteko material azpikontratatuak eta horien ehunekoa.
- Lanak egiteko programa, GANTT diagrama monetarioaren bidez egindakoa. Bertan, obraren azterketa teknikoa oinarritzat hartuta eta eskainitako bitarteko materialekin eta giza baliabideekin koherentzian, agiriz eta arrazoituta justifikatu behar da eskainitako epeak bideragarriak direla bermatzeko jardueren halabeharrezko sekuentzia, eta jarduera bakoitzaren iraupena, bitarteko materialak eta giza baliabideak adierazi.
- Aurkezpen zuzen eta aztertua, non ekipoak eta errendimenduak, hasiera- eta amaiera-egunak, bide kritikoa eta proiektuaren ezagutza-maila handia azaldu behar diren.
- Proiektuaren analisi kritikoaren azalpen-memoria».

Hortaz, eskaintza teknikoaren baldintza-orriak eta ebaluazio-irizpideak egiteko orduan, Bidasoa Oarsoko Industrialdea SA enpresak banakapen zabala bilatu du, aurkeztutako lizitatzailen artean eskaintzarik onena zein den zehaztu ahal izateko.

III.2 HORNITZAILEEI ORDAINZEKO EPEA

“Sozietateak 238.353 euro abonatu ditu guztira (2017ko ordainketen % 9,1), merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriei buruzko abenduaren 29ko 3/2004 Legearen 4. artikuluan ezartzen den 30 eguneko gehieneko epea gaindituz.”

Batez ere, helbideratutako ordainketak zeuzkaten fakturengatik gertatu zen hori; izan ere, hornitzaileak berak fakturak bidaltzearen mende egon da abonua.

III.3 BESTE ALDERDI BATZUK

“2009ko apirilean, Txirrita-Maleoko (Errenteria) pabiloi bat alokatzeko kontratua sinatu zen, eta, 2017an, pabiloia erosi zen. Bada, estalkia antzeko estalki batekin ordezkatzeko kostuaren % 50 sozietateak ordainduko zuela jaso zen eskritura publikoan (estalkiari bizitza baliagarria amaitu zitzaion). Fiskalizazio-lana egin denean, ez da konpromiso horren kostuaren balioespenik aurkitu, ez eta berori egiteko data aurreikusirik ere.”



2018ko ekitaldia itxi zenean, estalkia berriztatzeko proiektu bat zegoen, 27.469,80 eurokoa. Ondorioz, zenbateko horrengatik hornidura erregistratu da sozietatean, lanak hasten direnerako.

Jabekideen komunitatearekin egiten ari diren negoziazioen arabera hasiko dira lanak egun batean ala beste batean, komunitate horren oniritzirik gabe ezin daitezkeelako obrak hasi.



ABREVIATURAS

CAE	Comunidad Autónoma de Euskadi.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
IIC	Instrucciones Internas de Contratación.
STC-ELS, SA	Sociedad para la Transformación Competitiva-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SA.
TRLCSP	Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
TRLPOHGPV	Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.



I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (en adelante el Tribunal), de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988 y en el Plan de trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha fiscalizado las cuentas anuales del ejercicio 2017 de Bidasoa Oarsoko Industrialdea, SA (en adelante la Sociedad).

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legales: revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de presupuesto, personal y adquisición de bienes y servicios.
- Contables: conformidad de las cuentas anuales con los principios contables que le resulten de aplicación. La Sociedad se encuentra auditada, por lo que nuestro trabajo ha consistido en una revisión de los papeles de trabajo de los auditores, realizando, en su caso, las pruebas complementarias que hemos considerado necesarias.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis de la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe del informe denominado “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

La Sociedad se constituyó el 7 de marzo de 1986. Forma parte del Grupo SPRI, encabezado por STC-ELS, SA, participada en un 99,1% por la Administración General de la CAPV.

La composición del accionariado a 31 de diciembre de 2017 es:

Miles de euros		
Accionista	% Participación	Importe
SPRILUR, SA (*).....	51,00%	7.920
Diputación Foral de Gipuzkoa	24,50%	3.805
Ayuntamiento de Irun	16,68%	2.590
Oarsoaldea, SA (**).....	7,82%	1.215
